

**SAKANAKO EUSKALTEGIEK HELDUAK EUSKALDUNTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA:  
OINARRIAK**

**1. Oinarrien xedea eta zertarakoa.** Oinarri hauen xedea da Sakanako euskaltegiei helduak euskalduntzeko ematen zaizkien laguntzak arautzea.

**2. Dirulaguntzaren gaiak eta kontzeptuak.** Deialdi honek 2023. urtean zehar burutzen diren ikastaroak hartuko ditu kontuan.

**3. Dirulaguntzaren zenbatekoa.** Helburu honetarako, guztira, 25.000,00 euro erabiliko dira, Euskara Zerbitzuko 2023ko ekitaldiko aurrekontuetako 4 3350 4820004 (euskaltegiendako dirulaguntzak) diru-sailean jasotako kredituaren kontura. Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du eskumena esleituta duen organoak, aldaketaren zenbatekoaren arabera. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Talde baten ikastordu bakoitzaren kostua 72,00 eurokoa izanen da; autoikaskuntzako ikastordu bakoitzaren kostua, berriz, 12,00 eurokoa. Kostu horretan sartuko dira, besteak beste, irakaslearen soldata, gizarte-asegurua, klasea prestatzeko orduak, irakaslearen prestakuntza, materiala, egoitzaren mantentze-lanak eta irakaslearen kilometrajea.

Dirulaguntza ikasle-kopuruaren eta ikastorduen arabera izanen da, eta defizita izan baldin bada emango da.

Dirulaguntzen guztizkoa deialdiari esleitu zaion diru-kopurua baino handiagoa bada, behar den epean eta behar den moduan aurkeztutako eskaeren artean hainbanatuko da aurrekontuetan gehienez ere aurreikusitako diru-esleipena, deialdiko baldintzak betetzen dituzten artean betiere.

Dirulaguntzaren zenbatekoa betiere Sakanako Mankomunitateko aurrekontuaren ahalmenaren arabera izanen da.

**4. Deialdiaren publizitatea.** Deialdi hau aditzera emateko, prentsa-oharra helaraziko zaie hedabideei. Horrez gain, deialdiaren testu osoa Sakanako Mankomunitatearen webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) jarriko da, eta laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**5. Eskabideak aurkezteko epea.** Eskabideak egiteko epea 2023ko martxoaren 31 artekoa izango da, 2023. urteko 1. hiruhilekoari dagozkion dirulaguntzetarako;

ekainaren 30 artekoa, 2023. urteko 2. hiruhilekoari dagozkion dirulaguntzetarako; urriaren 31 artekoa, 2023. urteko 3. eta 4. hiruhilekoei dagozkion dirulaguntzetarako.

**6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.** Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da Sakanako Mankomunitateko bulegoetako erregistro orokorrean edo erregistro elektronikoaren bidez:

- a) Dirulaguntza-eskabidea.
- b) Emandako ikastaro bakoitzaren ikasketa-maila, irakaslea, ikasle-kopurua, egutegia eta ordutegia.
- c) Emandako ikastaro bakoitzaren balantze ekonomikoa.
- d) Talde bakoitzeko ikasleen zerrenda, izen-abizenak, adina eta herria zehaztuz.
- e) Ikastegiko zuzendariak edo arduradunak sinaturiko zinpeko adierazpena, aurkeztu diren argibide eta agiriak egiazkoak direla adieraziz.
- f) Helburu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztien aitortpena. Adierazi beharko da eskaerak ebatzteke edo ebatzita dauden; azken kasu horretan, kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia erantsiko da.

Hona zer helbidetan aurkeztu behar den dokumentazioa:

**Sakanako Mankomunitatea**  
**Uriz 32**  
**31830 Lakuntza**

Edo:

<https://sedeelectronica.sakana-mank.com/eu/tramites/registro-electronico/>

Ez dira posta elektroniko bidez jasotako eskabideak aintzat hartuko.

Deialdiaren inguruko zalantza edo esatekoren bat izanez gero, Sakanako Mankomunitateko bulegoetara jo, euskaral@sakana-mank.eus helbidera idatzi edo 948 464840 telefonora deitu.

**7. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak.** Onuradunak honako hauetara behartuta egongo dira:

- a) Kalitatezko irakaskuntza eskaintzera.
- b) Euskalduntze-alfabetatzea ekonomikoki bideragarria izan dadin neurriak hartzera.
- c) Zazpi ikasle edo gehiago edukitzera talde bakoitzean.
- d) Irakasleek gutxienez EGA agiria eta glotodidaktikako ikastaroa izatera.
- e) Beren propagandan ikastaroak diruz lagunduta daudela adieraztera.
- f) Sakanako Mankomunitatearekiko zerga-betebeharrak ordainduta izatera (Mankomunitateak ofizioz egiaztatuko du hori, eta behar den eginbidearen bitartez jasoko du).

**8. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea.** Aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar

egun emango zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Sakanako Mankomunitateko lehendakariak horretarako ebazpena egingo du.

**9. Ebazpena.** Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko ebazpena Sakanako Mankomunitateko lehendakariak emango du hamabost eguneko epean, Euskara Batzordearen irizpena aintzat hartuz.

Ebazpen hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Dirulaguntza nori eman zaion zehaztu behar da esleipen-ebazpenean, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurso-bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beste edozein errekurso-bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

Ebazpena eman eta ordaintzeko epea lau hilabetekoa da, gehienez ere. Dirulaguntza eman eta ordainketa agintzeko ebazpena emateko epea 2023ko abenduaren 31n amaituko da. Behin epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat jotzen ahalko da.

**10. Dirulaguntzaren ordainketa.** Dirulaguntza 3 zatitan emanen die Sakanako Mankomunitateak eskatzaileei, dokumentazioa alde aurretik aurkezturik.

Onuradunen bati esleitutako laguntzaren zenbatekoa murrizten bazaio dokumentazio osoa ez aurkezteagatik, ez justifikatzeagatik edo epeak edo deialdiko oinarrietakoren bat ez betetzeagatik, soberakina proportzionalki banatzen ahalko da gainerako onuradunen artean.

Azken ordainketa egin baino lehen, urte osoari dagokion kitapena egingo da. Horretarako, Euskara Batzordearen irizpena beharko da.

**11. Bateragarritasuna.** Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk objektu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada.

**12. Dirulaguntzen itzulketak.** Dirulaguntza zati bat edo osoa itzuli beharko da, ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a) Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- b) Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c) Objektu bera duten eta bateraezinak diren dirulaguntzak aldi berean jasotzea.
- d) Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

**13. Arau-hauste eta zehapenak.** Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Diru Laguntzen Arautegi Orokorrak aginduko dute.

**14. Datuen babesa.** Eskatzaileen datuak Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean ezarritakoaren arabera tratatuko dira. Eskatzaileek ematen dituzten datuak Sakanako Mankomunitateak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategietan sartuko dira. Betiere helburua izango da bai dirulaguntzen deialdi hau bai horrekin zerikusia duen beste edozein administrazio-espeditante kudeatzea. Fitxategi horren arduraduna Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua izango da, eta sartu, zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak Sakanako Mankomunitatea duen jendearendako harrera bulegoan (Lakuntzan, Uriz 32) egikaritu ahal izango dira.

**15. Ordezko arauak.** Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako, Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

**16. Errekurtsoak.** Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haien betearazteko hartzen diren ebazpenen aurka ere, errekurtsio hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

a) Berraztertzeko errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, hel egiten den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, hel egiten den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Hel egiten den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

**SAKANAKO EUSKALTEGIEK HELDUAK EUSKALDUNTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA:  
ESKABIDEA**

<b>Erakunde eskatzailea</b>	
<b>Izena</b>	
<b>Helbidea</b>	
<b>IFK</b>	
<b>Herria</b>	<b>PK</b>
<b>①</b>	<b>E-posta</b>
<b>Kontu korrontearen zenbakia</b>	
<b>Arduraduna</b>	
<b>Izen-deiturak</b>	
<b>Eskaera</b>	
Eskatzen dut: onar dakizkidala dirulaguntza eskaera eta aurkeztutako gainerako agiriak.	
<b>Zinpeko agiria</b>	
Zinpeko aitortpen hau egiten dut: eskabide honekin batera aurkeztu ditudan argibide eta agiriak egiazkoak direla.	
<b>Lekua eta data</b>	
<b>Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua</b>	

Bildutako datu pertsonalak dirulaguntzen fitxategian gordeko dira. Horren helburua da Euskara Zerbitzuak ematen dituen dirulaguntzen eskaerak biltzea, erregistratzea eta kudeatzea. Dirulaguntzei buruzko Legea da datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa. Sakanako Mankomunitatea da datu pertsonalen hartzailea. Datu pertsonalak dirulaguntzei eta administrazio-prozedurari buruzko araudian ezarritakoari jarraikiz gordeko dira. Interesdunak berriazko baimena ematen dio Sakanako Mankomunitateari datuak tratatzeko. Aditzaera ematen dizugu eskubidea duzula edozein momentotan zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua murrizteko edota haren kontra egiteko. Horretarako, jakinarazpen-idatzia bidali beharko duzu Sakanako Mankomunitatera, eta zure nortasuna egiaztatzea beharko duzu zuzenbideak onartutako edozein bide erabilita. Halaber, aditzaera ematen dizugu egokitzat joz gero erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzula kontrol-agintaritzan batean, hain zuzen ere, Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean.

**SAKANAKO EUSKALTEGIEK HELDUAK EUSKALDUNTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA:  
ZINPEKO AITORPENA**

Eskatzaileak hau aitortzen du:

Entitatea ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.

Laguntza-eskabide honetaz landa ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.

Dirulaguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:

<b>ERAKUNDEA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>	<b>EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)</b>

Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskabiderik eginez gero, Sakanako Mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)